GARBITANIA ZERO ZABOR S.M.k

HERNANIN GAIKAKO BILKETAN ETA KALE GARBIKETA ZERBITZUAN JASOTAKO ERREFUSAREN TRANSFERENTZIA ZERBITZUA KONTRATATZEKO ADMINISTRAZIO-KLAUSULA PARTIKULARREN AGIRIA

Aurkibidea

I. kapitulua.- XEDAPEN OROKORRAK 4
1.- KONTRATUAREN XEDEA 4
2.- KONTRATATZAILEAREN PROFILA 4
3.- KONTRATUAREN IRAUPENA 4
4.- LIZITAZIOAREN OINARRIZKO AURREKONTUA 4
5.- KONTRATUAREN BALIO ZENBATETSIA ETA LIZITAZIO PREZIOA 5
6.- ORDAINTZEKO ERA 5
7.- PREZIOEN BERRIKUSTEA 5
8.- BEHIN BETIKO BERMEA 5
9.- KONTRATUAREN ARAUBIDE JURIDIKOA ETA JURISDIKZIO ESKUDUNA 6
II. Kapitulua.- KONTRATZEKO JARDUNBIDEA 6
10.- LIZITAZIO PROZEDURA ETA ERA 6
11.- KONTRATATUA IZATEKO GAITASUNA 7
12.- ESKABIDEAK AURKEZTEA 9
13. LIZITATZAILEEI INFORMAZIOA 11
14. KONFIDENTZIALTASUNA 11
15.- ESKAINTZA BEREZIKI BAXUAK 12
16.- AGIRIAK SAILKATZEA, ENPRESAK AUKERATZEA ETA PROPOSAMENAK IREKITZEA 12
17. KONTRATUA ESLEITZEA 13
18.- KONTRATUA FORMALIZATZEA 15
III. Kapitulua.- KONTRATUA GAUZATZEA 15
19.- KONTRATUA GAUZATZEKO BALDINTZA OROKORRAK 15
20.- KONTRATUA GAUZATZEKO BALDINTZA BEREZIAK 16
21.- GENERO BERDINTASUNA BERMATZEKO OBLIGAZIOA 17
22.- HIZKUNTZA BETEBEHARRAK 17
23.- SEGURTASUNA ETA OSASUNA 18
24.- KONTRATISTAREN ERANTZUKIZUNA KONTRATUA GAUZATU BITARTEAN HIRUGARRENGOEI EGINDAKO KALTEENGATIK 18
25.- EKIPAMENDU ETA BITARTEKO PERTSONALAK 18
26.- BITARTEKO MATERIALAK 18
27.- KONTRATUAREN ALDAKETAK 18
28.- BAIMENAK 19

29.- LANEN KONTROLA.....19
30.- LANAK ONARTZEA.....19
31.- ZIGORRAK KONTRATISTARI KONTRATUA EZ BETETZEAGATIK.....19
32.- KONTRATUA BERTAN BEHERA UZTEKO ARRAZOIAK.....20
33.- DATU PERTSONALAK BABESTEA.....20
34.- KONTRATAZIO-ORGANOA.....20
ERANSKINAK:.....21
I.- PROPOSAMEN EKONOMIKOA-EREDUA “3 ARTXIBO ELEKTRONIKOA”.....21
II.- AITORPEN ARDURATSURAKO EREDUA “1. ARTXIBO ELEKTRONIKOA”.....22

I. kapitulua.- XEDAPEN OROKORRAK

1.- KONTRATUAREN XEDEA

Kontratuaren xedea, agiri teknikoan jasotako irizpide eta lehiaketa prozesuaren ondoren esleituak aurkeztu eskaintzan jasotako xehetasunak oinarri hartuta, Garbitania Zero Zabor S.M.k (aurrerantzean Garbitania) Hernanin gaikako bilketan eta kale garbiketa zerbitzuan jasotzen duen errefusaren kontainerretan bildutako errefusa jaso, San Markoko tolban hustu eta kontainer bakoitza berriro ere bere lekuan hutsik birkokatzeko zerbitzuaren kontratazio gisa definitzen da.

Helburu hori Europako Batzordeko Kontratuen Hiztegi Komuneko (CPV) nomenklaturaren 90512000-9 kodeari dagokio.

Pleguek kontratu izaera izango dute. Ondorio guztietarako, baldintza administratibo partikularren agiri honek, baldintza teknikoen agiriak eta horien eranskinek, kontratuko dokumentu izaera izango dute, eta hori horrela izanik, aldeen eskubideak eta betebeharrak arautuko dituzte eta, ados dagoela adierazteko, enpresa esleipendunak sinatu beharko ditu kontratua formalizatzeko ekintzan.

2.- KONTRATATZAILEAREN PROFILA

SPKLren 63. artikuluaren arabera, eta Garbitaniak duen kontratazio jardueraren inguruko gardentasuna eta informaziora sarbide publikoa erdiestearren, eta beste publizitate bideak erabiltzea kaltetu gabe, lehiatzaileek Garbitaniaren kontratazio profilera sarbidea izango dute honako helbide elektronikoan: www.garbitania.eus

3.- KONTRATUAREN IRAUPENA

Kontratuaren iraupena BI URTEKOA izango da. Prozedura honetan biltzen den zerbitzu honek hasiera kontratua sinatu eta hurrengo egunean izango du.

Kontratua beste BI URTEZ luzatu ahal izango da, Garbitaniak horrela eskatuz gero eta gehienez urte beteko bi alditan (aldi bakoitzean Administrazio Kontseiluak horrela onartuz gero), eta esleitua zerbitzua luzatzera behartuta legoke, SPKLren 29.2 artikuluan xedatutakoari jarraiki. Kontratuaren iraupen osoa, luzapenak barne, gehienez ere LAU (4) urtekoa izango da.

Garbitaniak berak erabakitzen badu, bere ekimenez eta esleipendunak bere obligazioak bete ez dituelako, kontratua suntsiaraztea, esleipendunak zerbitzua ematen jarraitu beharko du, Garbitaniak horri egoki irizten badio, horretarako deitutako lizitazio berria esleitu arte, edota, gehienez ere, sei hilabetez, kontratua suntsiaraztea erabaki denetik kontatzen hasita. Epe horretan, kontratuan ezarritako prezioak aplikatzen jarraituko dira.

4.- LIZITAZIOAREN OINARRIZKO AURREKONTUA

Lizitazioaren oinarrizko aurrekontua, gastuaren gehienezko muga bezala operatzen duena eta kontratuaren arabera kontratazio organoak konprometitu dezakeena SPKLren 100. artikulua jarraiki, 90.816 €-koa da (LAUROGEITA HAMAR MILA

ZORTZIEHUN ETA HAMASEI EURO) %10ko BEZ barne, kontratuaren bi urtetarako gehi urtebeteko bi luzapenak.

Aurrekontu xehakapena

Bidaiaren prezioa	160€
Aurrekusitako bidaia kopurua	129
Aurrekontua (BEZ gabe)	82.560€
BEZ %10	8.256€
AURREKONTUA GUZTIRA (BEZ barne)	90.816€

5.- KONTRATUAREN BALIO ZENBATETSIA ETA LIZITAZIO PREZIOA

SPKLren 101. artikulua jarraiki, kontratuaren balio zenbatetsia 99.080(LAUROGEITA HEMERETZI MILA ETA LAUROGEI) BEZ kanpo honela banatuta:

- Kontratuaren hasierako iraupena: 41.280€
- Luzapenak: 41.280€
- Aurreikusitako aldaketak (%20): 16.520€

Lizitazio prezioa bidaiaren tarifa izango da, gehienez 160€ (BEZ kanpo). Urtean aurreikusten diren bidaia kopurua 129koa da. Kopuru hori estimazio bat da, hortaz, beharren arabera aldatu egin daiteke eta Garbitania ez da behartuta egongo bidaia kopuru hori betetzera.

Eskainitako prezioan, kontratatutako prestazioak behar bezala betetzeko egin behar dituzten gastu guztiak barne hartuko dira, alegia, gastu orokorrak, finantzarioak, irabaziak, aseguruak eta laneko denbora, langileen joan-etorria zerbitzua eskaintzen den lekuraino, dietak, beren kargura dauden langile teknikoen ordainsarien hornidurak, tasak eta deskontu mota guztiak, bereziki BEZa; horiek ezingo dira jasanarazi, beraz, esleipen prezioaren partida bereizi gisa, eta Garbitaniak ez du inolaz ere eratortzen den zenbatekoa baino handiagorik ordainduko. Balio Erantsiaren gaineko Zerga banakatuta agertu beharko da eskaintzetan, kontratuari aplikagarri zaion tipoa eta zenbatekoa bereizita, berau arautzen duen arautegiaren arabera.

Ez da onartuko lizitazio prezioa gaindituko duen proposamenik.

6.- ORDAINTZEKO ERA

Ordainketa **hilero** egingo da. Dagokion faktura, egindako garraio kopurua zehaztuta, aldez aurretik aurkeztuko du esleipendunak, hilero tona eta garraioen likidazioa egin ostean.

7.- PREZIOEN BERRIKUSTEA

SPKLren 103. artikuluak xedaturikoarekin bat, kontratu honi ez dagokio prezioaren berrazterketarik.

8.- BEHIN BETIKO BERMEA

Bere gain hartutako obligazioak beteko dituela bermatzeko, kontratuaren esleipenduna beharturik dago behin betiko bermea aurkeztera, esleitze-zenbatekoaren %5ekoa.

(BEZ kanpo). Kontratuaren prezioa unitateko prezioen arabera formulatzen denean, eratu beharreko bermearen zenbatekoa lizitazioaren oinarrizko aurrekontuaren araberakoa izango da, BEZik gabe.

Berme hori aurkezteko epea hamar lan-egunekoa izango da, errekerimendua jaso eta biharamunetik zenbatuta, SPKLren 108. artikuluan ezarritako edozein bide erabiliz egin ahal izango da hori.

Bermeak SPKLren 110. artikuluan ezartzen dituen kontzeptuengatik erantzungo du. Bermea itzuliko da, bai guztia edo, hala badagokio, zati bat, SPKLren 111. artikuluan xedaturikoaren arabera, bermearen epea amaitutakoan eta esleipendunak kontratuaren obligazio guztiak bete dituenean.

9.- KONTRATUAREN ARAUBIDE JURIDIKOA ETA JURISDIKZIO ESKUDUNA

Kontratuaren prestaketa, esleipen eta aldaketei buruz aldeen artean sor daitezkeen gatazkez jakiteko, aldaketon inpugnazioa SPKLren 204 eta 205. artikuluan xedatutakoa ez betetzean oinarritzen denean, aldaketa esleipen berri baten xede izan behar zuela uste denean, administrazioarekiko auzien jurisdikzio ordena izango da eskuduna.

Hala badagokio, SPKLren 44. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoa jarraiki errekurtsoa Kontratuen Inguruko Errekurtsoen Organoak jarri ahal izango da.

Kontratuaren ondorioei buruz eta azkentzeari buruz aldeen artean sor daitezkeen gatazkez jakiteko, jurisdikzio ordena zibila izango da eskuduna, aurreko paragrafoan aipatutako kontratu aldaketetan izan ezik.

II. Kapitulua.- KONTRATZEKO JARDUNBIDEA

10.- LIZITAZIO PROZEDURA ETA ERA

Kontratuaren lizitazioa eta esleipena **prozedura ireki** bidezkoa izango da hainbat esleipen irizpideri jarraiki kalitate-prezio erlazio onena oinarri hartuta, eta prozedura horretan kontratazio-organoak justifikatuz aukeratutako izangaiari esleituko zaio kontratua SPKLren 156. artikuluan eta ondorengoetan xedatutakoaren arabera.

Hauek dira kontratu hau esleitzeko kontuan hartuko diren irizpideak:

10.1 Balio-judizioko irizpideak (2. fitxategi elektronikoa):

Proposamen teknikoa (0-30 puntu)

Aurkeztutako proposamen teknikoaren kalitatea baloratuko da. Atalean, gutxienez, 15 puntu lortu beharko dira. Baztertu egingo dira gutxieneko puntuaketa lortzen ez duten proposamenak.

- Instalazioen eta erreserbako ibilgailuen deskribapena eta pertsonalaren prestakuntza.

1. Ibiligailuen zarata maila (erreserbakoa eta isurketen kasuan erabili beharrekoak): gehienez 6 puntu
2. Gidaiarien formakuntza gidatze efizientean: gehienez 6 puntu.
3. Ibiligailu titularra ordezkatzeko erreserbako ibiligailuaren ezaugarriak, propioa edo alokairuzkoa den zehaztuz: gehienez 4 puntu.
4. Erreserbako kontainerraren ezaugarriak, propioa edo alokairuzkoa den zehaztuz: gehienez 2 puntu.
5. Isurketen aurrean erabili beharreko ibiligaluaren deskribapena: gehienez 2 puntu.

Guztira gehienez 20 puntu.

- Zerbitzuaren deskribapena, antolaketa, jarraipena eta lan metodologia (ruten efizientzia azpimarratuz): gehienez 10 puntu.

10.2 Automatikoki baloratuko diren irizpideak (3. fitxategi elektronikoa). Gehienez 70 puntu.

- Eskaintza ekonomikoa (0-55) puntu

Onarturiko proposamenei dagozkien eskaintza ekonomikoen puntuazioa honela burutuko da:

- Eskaintzarik ekonomikoenak gehienezko puntuazioa izango luke (55 puntu)
- Lizitazioan jasotako prezioak zero puntu
- Gainontzeko eskaintzen puntuazioa aurreko bi baldintzen arabera sortutako proportzioaren arabera kalkulatuko dira.

- Erregai alternatiboen erabilera eta isurketa maila ibilgailu titularrean (elektrikoak, hibridoak, GNL). Gehienez 10 puntu.
  - Elektrikoa: 10 puntu
  - Hibridoa edo GNL/GNC: 5 puntu
  - Diesel edo gasolina EURO VI: 3 puntu
  - Besteek: 0 puntu.
- Emakumeen kontratazioa: enpresa lizitatzailean emakumeen ehunekoa sektorearen batezbestekoa baino 2 puntu gehiago izatea: 5 puntu.[1]

11.- KONTRATATUA IZATEKO GAITASUNA

Gaitasun juridikoa eta jardutekoa dute pertsona fisiko zein juridikoek parte hartu ahal izango dute kontratazio-jardunbide honetan, baldin eta beren kaudimena eta fidagarritasun tekniko edo profesionala frogatzen badituzte, eta kontratatzeko debekuren bat ez badute, SPKLren 71. artikuluan adierazitako arrazoiak direla eta.

[1] Pleguak egiteko momentuan enplegatutako emakume kopurua sektorean %21,6 da Eustat-en datuen arabera.
https://eu.eustat.eus/elementos/ele0013700/ti_poblacion-de-16-y-mas-anos-ocupada-de-la-ca-de-euskadi-por-ambitos-territoriales-segun-sectores-economicos-y-sexo-01012023/tbl0013788_e.html

Halaber, beren kabuz nahiz baimendutako pertsona batek ordezkaturik egin ahal izango dute hori, horretarako berariaz emandako ahalorde askietsia erabiliz. Pertsona juridikoa bertako kideren batek ordezkatzen duenean, ordezkari izateko ahalmena duela frogatu beharko du agiri bidez. Kasu batean nahiz bestean, arestian aipatutako kontratatzeko debekuek ordezkariari ere eragingo diote.

Gainera, enpresa lizitatzaileen jarduera nagusiak zerikusi zuzena izan behar du kontratu honen xedearekin, eta helburu hori behar bezala burutzeko behar adina giza baliabide eta baliabide material eduki behar ditu bere erakundeak.

Enpresariek, halaber, kontratu hau burutzeko eska daitekeen gaitasun enpresarial edo profesionala izan beharko dute.

Enpresari batzuk kontratazioan batera parte hartzeko interesatuta daudenean, aldi baterako enpresa elkartea sortu ahal izango dute horretarako. Esleipena bere alde egiten den arte ez da beharrezkoa izango elkarte hori eskritura publiko bidez formalizatzea. Kasu horretan, enpresariak modu solidarioan erantzungo du, eta elkartearen ordezkari edo apoderatu ahaldun bakarra izendatu beharko dute, eta horrek kontratutik eratortzen diren eskubideak gauzatzeko eta obligazioak betetzeko adinako ahalmenak izango ditu, kontratua amaitu arte.

<u>Kaudimena egiaztatzeko bitartekoak</u>

Kaudimena egiaztatu ahal izango da, bi hauetako modu batean: zehaztutako enpresa sailkapena egiaztatuz edo ezarritako kaudimen ekonomiko eta kaudimen teknikoko baldintzak egiaztatuz.

A) Enpresa sailkapenaren ziurtagiria:

Ogasun eta Herri Administrazioetako Ministerioak edo Eusko Jaurlaritzako Ogasun eta Herri Administrazioko Sailak emandako sailkapen ziurtagiria, zerbitzu kontratista gisa inskribatuta dagoela egiaztatzen duena.

B) Enpresa sailkaturik ez badago, honela ziurtatu beharko du kaudimena:

- Kaudimen ekonomiko eta finantzarioa, bitarteko hau erabilita egiaztatu beharko da:

  Kontratatu nahi den eremuari dagokion urteko negozio bolumena enpresariaren jarduerak hasteko edo eratzeko eta eskaintzak aurkezteko datak kontuan hartuta azkenengo hiru urteetako bolumen handieneko urteari kontratuaren balio zenbatetsiaren hainakoa edo handiagoa izan behar du.

  Lizitatzailearen edo hautagaiaren negozioen urteko bolumena bere urteko kontuen bidez, onartuak eta Merkataritza Erregistroan jasoak, egiaztatuko da eta bestela, inskribatua egon behar dueneko Erregistro

Ofizialean jasota dauden kontuen bitartez. Merkataritza Erregistroan inskribatu gabeko enpresari indibidualek bere urte negozioen bolumena Merkataritza Erregistroak legeztatutako inbentario-liburuen eta urteko kontuen bitartez egiaztatuko dute.

- Kaudimen teknikoa, bitarteko hauek erabilita egiaztatu beharko da:

  Azkeneko hiru urteetan emandako zerbitzu nagusien zerrenda, zenbatekoa, datak eta horiek norentzako egin diren aipatuz.

  Emandako zerbitzuak edo lanak egiaztatuko dira organo eskudunak egin edo ontzat emandako ziurtagirien bitartez, hartzailea sektore publikoko erakunde bat denean; hartzailea subjektu pribatua denean, honek egindako ziurtagiri baten bitartez edo, ziurtagiri horren faltan, enpresariak eginiko aitorpenaren bitartez; bere kasuan ziurtagiri hauek zuzenean kontratazio organoari igorriko dizkio eskumena duen agintaritzak.

  Gutxieneko baldintza izango da egikaritze handieneko urtean pilatutako urteko zenbatekoa kontratuaren balio zenbatetsiaren berdina edo handiagoa izatea, kontratuaren xede den zerbitzua izaera bere edo antzekotan. Enpresariak emandako horniduren eta kontratuaren xede diren horniduren arteko loturarako irizpidetzat hartuko da sailkapen azpitalde berekoak izatea, kontratua kokatuta balego arautegian ezartzen direnetako batea, eta hala ez balitz, CPV sailkapenaren barnean dagozkien kodeetan lehenengo digituen artean dagoen berdintasuna.

Aldi baterako enpresa-elkartearen kasuan, aldi baterako elkartearen kaudimen ekonomikoa, finantzarioa eta teknikoa edo profesionala erabakitzeko, hura osatzen duten bakoitzarentzat egiaztatutako ezaugarriak batuko dira.

12.- ESKABIDEAK AURKEZTEA

Kontratazio honen espedientea, baita horrekin batera doan dokumentazio teknikoa ere, Garbitania sozietateko bulego nagusietan (Lastaola poligonoa 3- A12 eraikina – Ereñotzu Auzoa 20120- Hernani. Gipuzkoa, goizeko 9:00etatik eguerdiko 14:00etara, egun baliodun guztietan) aztertu ahal izango da, lizitazio honen iragarkia kontratatzailearen profilean argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, proposamenak aurkezteko epea bukatzen den arte.

Garbitaniarekin harremanetan jartzeko:

Garbitania Zero Zabor S.M. Lastaola poligonoa 3- A12 eraikina – Ereñotzu Auzoa 20120- Hernani

Tel. 943 369609/Emaila: info@garbitania.eus

Proposamenak www.contratacion.euskadi.eus lizitazio elektronikorako plataformaren bitartez aurkeztuko dira, kontratatzailearen profilean argitaratzen den iragarkiak emandako epe barruan.

Lizitatzaile bakoitzak ezingo du eskaintza bat baino gehiago aurkeztu. Ezingo da beste batzuekin aldi baterako batasun batean parte hartzeko eskabiderik aurkeztu, baldin eta banaka ere aurkeztu bada, eta ezingo da aldi berean batasun batean baino gehiagotan parte hartu.

Enpresa lizitatzaileak **HIRU ARTXIBO ELEKTRONIKO** aurkeztu beharko ditu.

"1" zenbakidun artxibo elektronikoa: DOKUMENTAZIO ADMINISTRATIBOA

Hona hemen aurkeztu beharko agiriak:

1.- Europako Kontratazio Agiri Bakarra (EKAB)

2.- Erantzukizunpeko adierazpena, agiri honen II. eranskineko ereduaren arabera

* Prozedura behar bezala aurrera eramateko beharrezkoa denean, kontratazio organo edo mahaiak egiaztagiri guztiak edo zati bat aurkezteko eskatu ahalko die lizitatzaileei, baldin eta uste badu arrazoizko zalantzak daudela adierazpenaren indarraldi edo fidagarritasunari buruz, kontratua esleitu aurretik ere.

** Hainbat enpresa aldi baterako enpresa elkarte gisa aurkezten badira lizitazio honetara, enpresari horietako bakoitzak erantzukizunpenko adierazpena aurkeztuko du, Pleguko I. eranskineko eredua jarraituz.

Aurreko paragrafoak aipagai duen adierazpen horren edo horien osagarri gisa, parte hartu behar duten enpresariek aldi baterako enpresa elkartea SPKLren 69. artikuluaren 3. atalean eskatutakoaren arabera eta kontratua suntsitu arteko gutxienezko iraupenaz osatzeko konpromisoa aurkeztuko da.

Konpromiso hori hartzeko idazkia elkartea eratzen duten enpresa guztiek sinatu beharko dute, eta honako hauek adierazi beharko ditu: aldi baterako enpresa elkarte bakoitza eratuko dutenen izenak eta inguruabarrak, elkarteko kide bakoitzaren partaidetza eta kontratuaren esleipendun gertatuz gero aldi baterako enpresa elkartea formalki eratzeko konpromisoa.

"2" zenbakidun artxibo elektronikoa: PROPOSAMEN TEKNIKOA

Lizitatzaileak proposamen tekniko edo memoria bat aurkeztu beharko du; memoria horrek plegu honetako 10. atalaren arabera baloratu beharreko alderdiak jaso beharko ditu, eta bere edukiak nahikoa izan beharko du baloratu beharrekoen nondik norakoak neurtzeko. Memoriak hasieran eduki guztien aurkibide bat ere izango du.

* Ezingo da automatikoki baloratu beharreko daturik jaso 2. fitxategi honetan; alegia, ez da azalduko eskaintza ekonomikoari dagokion informaziorik. Halakorik gertatuko balitz, proposamena automatikoki baztertuko litzateke.

"3" zenbakidun artxibo elektronikoa "ESKAINTZA – IRIZPIDE AUTOMATIKO BIDEZ AZTERTZEKO DOKUMENTAZIOA"

- Proposamen-eredua, agiri honen I. eranskinean jasotako ereduaren arabera, behar bezala beteta.

* Proposamen bat ez badator bat aztertzen eta onartzen den dokumentazioarekin, lizitazioaren oinarrizko aurrekontua gainditzen badu, nabarmen ezberdina bada ereduaren aldean, ageriko akats bat badu zenbatekoari dagokionez edo bidera ezin bihurtzen duen akats edo ahuluneren bat badu aurkezten duen lizitatzailearen esanetan, kontratazio mahaiak baztertu egingo du, ebazpen arrazoitu baten bidez. Ereduko hitz batzuk aldatzea edo ez jartzea, ordea, ez da izango nahikoa proposamenak baztertzeko, haien zentzua aldatzen ez bada betiere.

** Ez da onartuko ereduaren arabera idatzi ez den proposamen ekonomikorik, edo eskaintza kontuan hartzeko kontratazio mahaiak funtsezkotzat jotzen duena argi jakitea galarazten duen omisiorik, akatsik edo ezabaketarik daukanik

13. LIZITATZAILEEI INFORMAZIOA

Kontratazio organoak SPKLren 138.3 artikuluak xedaturikoa jarraituz, lizitazio prozeduran interesdunak informazio gehigarria edo osagarria eskatzen badu, kontratatzaileak, proposamenak jasotzeko ezarririko muga-eguna baino gutxienez sei (6) egun lehenago eman beharko du, betiere, eskaera hori aurreko datarekiko gutxienez hamabi (12) egun lehenago aurkezten bada.

14. KONFIDENTZIALTASUNA

SPKLren 133. artikuluaren arabera, Garbitaniak ez du zabalduko enpresariek emandako informaziorik, baldin eta haien eskaintza aurkeztean konfidentzialtzat jo badute.

Konfidentzialtasun-izaerak eragiten die, besteak beste, sekretu tekniko edo komertzialei, eskaintzen alderdi konfidentzialei eta gainerako beste edozein informaziori, baldin eta eduki hori lehia faltsutzeko erabili ahal bada, izan lizitazio-prozedura honetan, izan beste hurrengo beste batzuetan.

Kontratazio-organoaren konfidentzialtasun betebeharra, eta haren mendean dauden zerbitzuena, ezingo da zabaldu esleipendunaren eskaintzaren eduki osora.

Konfidentzialtasunaren betebeharrak, halaber, ezingo du eragotzi egindako kontratuen zati ez konfidentzialak publikoki argitaratzea, betiere abenduaren 5eko Datu Pertsonalen babeserako eta eskubide digitalen bermeari buruzko 3/2018 Lege Organikoan eta hori garatzen duen araudian ezarritakoa errespetatuz.

Kontratistak errespetatu egin beharko du kontratua egiten eskuratu duen informazioa, baldin eta orrietan edo kontratuan izaera hori eman bazaio, edo bere izaera beragatik halakotzat jo bada. Betebehar horri informazioa eskuratu eta bost urteko epean eutsi beharko zaio.

15.- ESKAINTZA BEREZIKI BAXUAK

Kontratu honetan anormaltasun-presuntzioko beherapenik dagoen ikusteko, Administrazio Publikoetako Kontratuen legearen Erregelamendu Orokorrean 85. artikuluak ezartzen dituen irizpideak erabiliko dira. Halako kasuetan SPKLren 149. artikuluan aurreikusitako prozedura izapidetu beharko da, non dagokion zerbitzuaren aholkularitza teknikoa eskatuko den. Kasu guztietan ere, kontratazio organoek baztertu egingo dituzte eskaintzak, baldin eta, azpikontratazioari buruzko araudia urraturik, egiaztatzen badute ez-ohiko beherapena dutela, edo egiaztatzen badute ez dituztela betetzen ingurumenaren, gizarte-gaien edo lanaren alorrean, nazio mailan zein nazioartekoan, aplikatzen diren betebeharrak; ezta indarrean dauden hitzarmen kolektibo sektorialak ere.

Nolanahi ere, ulertuko da justifikazioak ez duela azaltzen era egokian lizitatzaileak proposatutako prezio edo kostuen maila baxua, noiz eta justifikazioa osatu gabea denean edo hipotesi edo jarduera desegokietan oinarritzen denean ikuspegi tekniko, juridiko edo ekonomikotik.

Anormaltasun-presuntzioan egon den enpresari adjudikatu bazaio kontratua kontratazio-organoak bermatu egingo du kontratua egoki betetzea, zerbitzuetan, obretan edo kontratatutako horniketetan kalitate-jaitsierarik egon ez dadin.

16.- AGIRIAK SAILKATZEA, ENPRESAK AUKERATZEA ETA PROPOSAMENAK IREKITZEA

Bai hasierako deialdia bai gerta litezkeen aldaketak kontratatzailearen profilean argitaratuko dira. Dena dela, jakinarazteko beste moduren bate ere jo liteke egokitzat.

Proposamenak aurkezteko epea amaitu eta hurrengo egunetan “1” zenbakidun artxibo elektronikoko dokumentazio administratiboa irekiko da.

Kontratazio-organoak edo kontratazio-mahaiak hala eskatuta, lizitatzaileek adierazpen arduratsua zuzendu beharko dute, baldin ez bada aurkeztu edo aurkeztu dena ez badago behar bezala beteta. Halako kasuetan, eragindako lizitatzaileari edo lizitatzaileei, hiru egun baliodunekoeko epea emango zaie, zuzentzeko-errekerimendua jaso eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita. Ez bada epe horretan eskatutakoa zuzentzen, kontratazio-organo edo-mahaiak ulertuko du lizitatzaileak atzera egin duela bere eskaintzan.

Kontratazio-mahaiak “2” zenbakidun artxibo elektronikoa irekiko du, balio iritzi bidez balioztatzeko eskaintza dakarrena. Egintza horretan adieraziko du mahaiak “1” zenbakidun artxiboan aurkeztutako dokumentazioaren kalifikazioa eta zer proposamen onartu diren, zer proposamen baztertu diren eta zergatik baztertu diren horiek.

Balio iritzi bidez balioztatzeko dokumentazioa dagokion teknikoei helaraziko zaie, txostena egin dezaten.

"3" zenbakidun artxibo elektronikoa jendaurrean irekiko da eta profilean jasotako deialdian hala zehazten bada, zuzenean jarraitu ahal izango da bertan jasotako lotura bidez.

Era berean, jakinaraziko du nola balioztatu dituen balio iritzi bidez balioztatzeko esleipen irizpideak; eta, azkenik, irizpide automatikoak ireki eta irakurriko ditu.

Egintza publikoa amaitutakoan, bilkura berean, eskaintzak ebaluatuko eta sailkatuko ditu mahaiak. Aurrez, honelakorik bada, pleguak finkatzen dituen eskakizunak betetzen ez dituzten eskaintzak baztertuko ditu.

Gero, kontratua esleitzeko proposamena aurkeztuko dio mahaiak kontratazio-organoari puntuaziorik onena lortzen duen hautagaiaren alde; eta zera egiaztatuko du esleipendun izateko proposatzen duen lizitatzaileari dagokionez: enpresa behar bezala eratu izana; proposamenaren sinatzaileak eskaintza egiteko ahalorde askietsia izatea; kaudimen ekonomiko, finantzario eta teknikoa izatea edo, bestela, dagokion sailkapena; eta kontratatzeko inongo debekupean ez egotea.

Gainera, kontratua esleitzeko beharrezkoa den dokumentazioa aurkezteko eskatuko dio puntuazioren onena lortzen duen enpresari eta hala badagokio, enpresa lizitatzaileen erregistroan ez dagoen beste edozein dokumentazio.

17. KONTRATUA ESLEITZEA

Kontratazio-mahaiak, SPKLren 150. artikuluan ezarritakoarekin bat etorriz, kontratazio-organoari igorriko dizkio aurkeztutako proposamenak, beherazko hurrenkeran antolatuak, eta baztertuak edo neurriz kanpokotzat jo direnak salbu, aktarekin eta esleipen-proposamenarekin batera.

Esleipen proposamenak ez du lizitatzailearen aldeko eskubiderik sortzen. Eskubideak sortuko dira lizitatzaileak kontratua sinatu edo esleipen proposamena onartzen duenean.

Mahaiak enpresari eskatuko dio (edo ABEE osatzen duten enpresei), Lizitatzaileen erregistroak izena emanda agertzeko obligaziorik ez badago edo datu edo dokumentuetakoren bat Erregistro horretan jasota ez badago, honako dokumentazio hau aurkeztu dezaten epe berean:

1) Lizitatzailearen nortasuna egiaztatzeko dokumentuak:

- Lizitatzailea pertsona juridikoa bada, nortasuna, osaera, edo hala badagokio, aldaketa eskritura bidez egiaztatuko da, baldintza hori eskatzen den kasuetan. Bestela, osaera dokumentua, estatutuak edo sortze ekintza aurkeztu beharko du jarduera arautzen duten arauak jasota, dagokion Erregistro Ofizialean inskribatua, hala behar izanez gero. Pertsona juridikoak bakarrik izan daitezke esleipendun beren estatutuen edo sortze arauen arabera dagozkien helburuen eta jarduera esparruaren

barneko prestazioak jasotzen dituzten kontratuak direnean, eta kontu horrek egiaztatuta egon behar du aurkeztutako dokumentazioan.

- Lizitatzailea pertsona fisikoa bada, Nortasun Agiri Nazionala edo baliokide den dokumentuaren bitartez.

2) Eskaintzaren sinatzailearen ordezkaritza egiaztatzen duen dokumentazioa (pertsona horrek beste pertsona fisiko edo juridiko baten izenean jarduten duenean)

3) Eskaintzak aurkezteko fasean egindako adierazpenaren arabera kontratatzeko daukan kaudimen ekonomikoa, finantzarioa eta teknikoa egiaztatzeko dokumentazioa. (11. atalaren arabera)

4) Zerga eta Gizarte Segurantzako obligazioak betetzen dituela egiaztatzen duten justifikazio dokumentuak.

5) Ekonomia Jardueren gaineko Zergan, kontratuaren xedeari dagokion epigrafean, alta emanda dagoela egiaztatzea, alta aurkeztuz, indarrean den ekitaldiari badagokio, edota Jardueren gaineko Zergaren azken ordainagiria, gainerakoetan; eta bi egoeratako edozeinetan, aipatutako zergaren matrikulan baja eskatu ez izanaren erantzukizunpeko aitorpena.

6) Dagokion behin- betiko bermea aurkeztu izanaren ziurtagiria.

7) Laneko arriskuen prebentzioari buruzko dokumentazioari dagokionez honakoak:

- Enpresak hartu duen prebentzioaren antolaketa moduaren ziurtagiria.
- Lan arriskuen ebaluazioa, bere jarduerari dagokiona.
- Beraien lanpostuan aritzeko langileen mediku-gaitasun ziurtagiriak (osasun zaintza).
- Langileek, egiten duten jarduerari buruzko beharrezko informazioa eta prestakuntza jaso dutela egiaztatzen duen ziurtagiria.
- Langileen lanpostuen jardueretarako beharrezkoak diren Norbera Babesteko Ekipamenduen entrega ziurtagiria eta hauek erabiltzeko beharrezko informazioa eta prestakuntza jaso dutela egiaztatzen duen ziurtagiria.
- Lanak egingo dituzten langileen zerrenda.
- Langileen RLC eta RNT kotizazio agiriak eta Gizarte Segurantzari kuotak ordaintzen direla ziurtatzen duten agiriak.

8) Seguruei dagokienez honakoak:

- Erantzukizun zibileko polizaren kopia, bere estaldura gutxienez 300.000

eurokoa izango delarik.

- Ibilgailuen seguruen kopia.

9) Behar den kasuan enpresa elkartuaren eratzearen ziurtagiri legala.

10) Deskribatutako hondakina garraiatzeko Eusko Jaurlaritzako Ingurumen eta Lurralde Politikako sailak Hondakin eta Lur kutsatuen 22/2011 Legean jasotako aktibitateak aurrera eramateko beharrezkoak diren baimen eta erregistroen jabetzan dagoela ziurtatzen duten agiria.

Esleipenduna enpresen batasun bat baldin bada, kontratua sinatu aurretik, Enpresen Aldi Baterako Batasun gisa legez eratu dela egiaztatu beharko du, eta horren IFK aurkeztu.

Errekerimendua adierazitako epean behar bezala bete ezean, ulertuko da lizitatzaileak kendu egin duela bere eskaintza. Kasu horretan, puntuazioan hurrengoa den hautagaiaren alde esleitzeko proposamena egingo da eta dokumentazio bera eskatu zaio.

18.- KONTRATUA FORMALIZATZEA

Garbitaniako organo eskudunak esleipena egin eta hori jakinarazi ondoren, kontratua administrazio-dokumentuan formalizatu behar du. Esleipendunak gehienez ere 15 laneguneko epean, kontratuaren sinatzea burutu behar du eta agiri hori aski titulu izango da edozein erregistro publikotara iristeko.

Kontratistari egozteko moduko arrazoiengatik kontratua ez bada formalizatzen aipaturiko epearen barruan, Garbitaniak suntsiaraztea erabaki dezake, baita behin betiko bermea bahitu edo konfiskatzea ere.

Kontratua formalizatzeko ekitaldi berean, kontratua izenpetzeaz gain, esleipendunak Administrazio Klausula Berezien Agiria eta Baldintza Teknikoen Agiria izenpetuko du, horrela agertuz baduela horien berri eta ados dagoela.

Kontratua formalizatzea ezinbesteko betebeharra izango da edozein ordainketa bideratzeko.

III. Kapitulua.- KONTRATUA GAUZATZEA

19.- KONTRATUA GAUZATZEKO BALDINTZA OROKORRAK

Kontratua ondorengo baldintza orokorrak jarraituz beteko da:

– Kontratistak kontratua beteko du ezarritako moduan eta baldintzetan, Administrazio-klausula Partikularren agirian, Agiri Teknikoan eta kontratistaren eskaintzan jasotakoa betez. Gainera, kontratistak bete egin beharko du Garbitaniak agindutakoa kontratua interpretatzean.

– Kontratuak lan arloan, gizarte-segurantzan eta laneko segurtasun eta osasunaren arloan aplikagarri diren lege- erregelamedu- eta hitzarmenezko xedapenak bete beharko ditu.

– Kontratua kontratistaren arrisku eta menturara beteko da.

– Garbitaniak edozein momentutan eta beharrezko diren edozein baliabiderekin zuzendu, egiaztatu eta gainbegiratu ahal izango du kontratutik eratortzen diren betebeharrak modu egokian betetzen direla.

Kontratistak Garbitaniatik eskatzen zaizkion datu guztiak eman beharko ditu, betiere kontratuaren objektu den prestazioarekin lotuta dauden kasuan. Gainera, eskatzen zaion laguntza eman beharko du inolako gainkosturik gabe eta kontratatutako zerbitzuarekin lotuta dagoen edozein dokumentazioarekiko (laborala, administratiboa, etab.) sarbidea erraztu beharko du.

Kontratistak ezingo ditu oztopatu Garbitaniak egiten dituen egiaztapen eta kontrol lanak.

– Kontratuaren prestazioa betetzeko behar diren langileak kontratistaren enpresaren langileak izango dira soilik eta enpresariarenak izango dira eskubide eta betebehar guztiak langile horiekiko. Hortaz, euren lan-harremanaren ondorioz sortzen diren erreklamazioak ezingo dira Garbitaniari zuzendu.

Kontratista izango da kontratuaren exekuzioan lan egiten duten langileen edozein ezbeharren edo erreklamazioren aurrean (judizialak edo judizioz kanpokoak) erantzule bakarra; izan langile horiek propioak edo eman daitekeen azpikontrataziorenak. Ondorioz, Garbitania ez da eremu laboral edo fiskalean kontratistak zuzenean edo zeharka hartutako obligazioen erantzule izango ezta Gizarte Segurantzarekiko hartutako obligazioen erantzule ere. Era berean, kontratistak kontratua betetzea dela eta ematen diren ezbeharrengatik erantzungo du soilik.

– Kontratistak Europar Parlamentuko eta Kontseiluko 2016ko apirilaren 27an onartutako 2016/679 Erregelamenduak (EB) ezarritakoak bete beharko ditu, pertsona fisikoen datu pertsonalen tratamenduari eta berauen zirkulazio libreari dagokionez. Arau horiez gain, datuen tratamenduaren alorrean aplikagarri den beste edozein xedapen ere jarraitu beharko du kontratistak kontratua indarrean dagoen bitartean.

– Kontratistak hondakinen kudeaketa gaietan, Europako, estatuko eta autonomia erkidegoko unean uneko arau guztiak bete beharko ditu.

– Kontratistak gutxienez kontratua indarrean dagoen bitartean, agiri honetan eta agiri teknikoan eskatzen diren aseguruak kontratatuak izan beharko ditu.

20.- KONTRATUA GAUZATZEKO BALDINTZA BEREZIAK

Kontratistek zein azpi kontratistek baldintza berezi hauek bete beharko dituzte kontratua gauzatzeko:

Sozialak: Kontratu honek indarrean dauden lege eta erregelamendu xedapenak zein xedapen konbentzionalak bete beharko ditu, lan arloari, Gizarte Segurantzari eta laneko segurtasun eta osasunari dagokienez.

Lizitatzaileek, esleipendun izanez gero, kontratuaren xede den jarduera gauzatuko duten langileei aplikatzeko hitzarmen kolektiboa zein den adierazi beharko dute.

Era berean, kontratua esleitu eta gero, derrigortuta egongo dira langileei egiazki ezartzen zaizkien lan baldintzei buruz eskatutako informazio guztia ematera.

Kontratua gauzatu bitartean, esleipendunak hitzarmen kolektibo aplikagarrian jasotzen den lansaria ordaindu beharko du, langileari dagokion kategoria profesionalaren arabera, eta ordaindu beharreko lansaria inola ere ez da hura baino txikiagoa izango.

Gainera esleipendunak eskaintzan zerbitzua emateko lehentasuna duen ibiligailua erabili beharko du (ibilgailu titularra) baldintza puntual baten ondorioz ezinezkoa izan ezean. Kasu horietan ibilgailu aldaketa jakinarazi beharko dio Garbitaniari.

Baldintza horiek ez betetzea kontratua suntsiarazteko arrazoi izango dira.

21.- GENERO BERDINTASUNA BERMATZEKO OBLIGAZIOA

Soldata-arrakalaren aurkako neurriak eta gizonek eta emakumeek ordainsari bera jasotzeko klausulak kontratazio publikoan sartzeko jarraibidea onartzen duen Eusko Jaurlaritzaren erabakia jarraiki, kontratistak ondorengo exekuzio baldintza berezia bete beharko du:

Tarteko agintariek eta zuzendaritzak gutxienez berdintasunaren inguruko 5 orduko formakuntza jasotzea.

22.- HIZKUNTZA BETEBEHARRAK

Hizkuntzari dagokionez, kontratu honek nahitaez bete behar du hizkuntza ofizialtasun bikoitzaren araubidea, Euskal Autonomia Erkidegoko Autonomia Estatutuaren 6. artikuluan ezarria eta Euskararen erabilera normalizatzeko azaroaren 24ko 10/1982 Oinarrizko Legean eta hori garatzen duten arauetan erregulatua.

19/2024 Dekretuak, otsailaren 22koa, Euskal Sektore Publikoan euskararen erabilera normalizatzekoa, zera adierazten du bere 13.1 artikuluan:

Euskal sektore publikoko entitateek egindako kontratazio publikoetako prozedurak gauzatzen direnean herritarren hizkuntza-eskubideei eta euskararen eta gaztelaniaren hizkuntza-ofizialtasunaren erregulazioa betetzeari dagokienez trabarik gerta ez dadin, kasu bakoitzean beharrezkoak diren klausulak sartuko dituzte kontratazio-organoek, baita, hala badagokio, behar diren baliabide ekonomikoak ere, betiere baldintza hauek betez:

a) Kontratuaren objektuari aplikagarri zaion hizkuntza-normalizazioaren arloko araudia bete beharko du.

b) Kontratazio-prozeduraren objektua baldin bada herritarrei zuzendutako prestazio bat edo hura gauzatzean herritarrekin harreman zuzena ezartzen bada, herritarrek aukeratzen duten hizkuntza ofizialean emango zaie arreta, eta, gainera, herritar hartzaileen hizkuntza-

eskubideak bermatzeko moduko baldintzetan emango da prestazioa. Horretarako, kontratazio-organoek kontratua betearazteko baldintza berezi gisa ezarriko dute euskarazko arreta bermatzeko plan bat egitea.

23.- SEGURTASUNA ETA OSASUNA

Kontratuaren xede den zerbitzu-ematearen eremuan segurtasun eta osasunaren erantzulea kontratista denez, aplikatzekoak diren arau juridikoak eta teknikoak beteko ditu.

Garbitaniak eskubidea izango du prebentzio-arloan egokia iruditzen zaion dokumentazioa eskatzeko kontratuak irauten duen bitartean. Beraz, kontratuaren esleipendunak Garbitaniaren aurrean Gizarte Segurantza eta Lan Osasunaren arloko betebeharrak betetzen dituela ziurtatu beharko du.

24.- KONTRATISTAREN ERANTZUKIZUNA KONTRATUA GAUZATU BITARTEAN HIRUGARRENGOEI EGINDAKO KALTEENGATIK

2017ko SPKLren 196. artikuluan xedatutakoaren arabera, kontratista izango da kontratua gauzatzeko behar diren eragiketen ondorioz sortzen diren kalteen erantzulea.

25.- EKIPAMENDU ETA BITARTEKO PERTSONALAK

Kontratistak ekipamendu eta bitarteko pertsonal egokiekin gauzatu beharko ditu lanak, eta horien jardueratik ondorioztatzen diren beharrei erantzungo die une oro.

26.- BITARTEKO MATERIALAK

Kontratistak bere proposamenean sartu dituen bitarteko tekniko guztiak jarriko ditu, eta, oro har, lanak ondo gauzatzeko beharrezkoak diren guztiak ere bai.

Eskaintzan sartutako baliabide teknikoak ordezteko, Garbitaniak onespena eman behar dio, aurrez proposamen justifikatua aurkeztuta.

27.- KONTRATUAREN ALDAKETAK

Behin kontratua sinatuta, interes publikoko arrazoiengatik bakarrik aldatu ahal izango du kontratua Garbitaniak, SPKLren 205. artikuluak ezarritako kasuetan eta moduan.

Aldaketak kontratazio organoak onartu beharko ditu, eta prozedurari dagokionez, SPKLren 191 eta 207 artikuluetan ezarritakoa jarraituko da, 153 artikuluaren arabera dokumentu batean formalizatu beharko da.

1. Aurreikusitako aldaketak:

SPKLren 204 artikuluan aratutakoarekin bat etorriz, kontratu hau aldatzeko baldintza izango dira ondorengoak:

- Hernaniko herrian jasotako errefusa kopurua ezin da aurretiaz zehatz mehatz jakin eta aurreikusitako bidaia kopurua aurreko urtetan egindakoak kontun hartuta kalkulatu da. Bidaia gehiago behar izanez gero, kontratistarekin adostuko dira gutxienez astebete lehenago eta berari komeni zaion erara egingo da betiere goizeko 6:00etatik eguerdiko 14:00etara.

Aldaketa horiek gerta daitezke bai kontratuaren hasierako iraupenean, baita luzapenetan ere. Kasu horietan, kontratuak bere hasierako balioaren %20rainoko aldaketan izan ahalko ditu.

Aldaketek ezin dute kontratuan aurreikusi gabe dauden banakako prezio berriak ezartzea ekarri.

Kasu honetan, kontratazio organoak erabakitako aldaketak nahitaeezkoak izango dira kontratistarentzat.

2. Aurreikusi gabeko kontratu aldaketak:

Soilik SPKLaren 205 artikuluan zehaztutako kasuetan eta bertan ezarritako mugekin egin ahal izango dira aurreikus gabeko aldaketak.

Kasu horretan, derrigorrezkoak izango dira kontratistarentzat, soilik, aldaketak %20ko muga gainditzen ez badute.

28.- BAIMENAK

Kontratistak zerbitzua hasi eta gauzatzeko beharrezko diren eta ezein erakunde publiko zein pribaturen arauetan xedatuta dauden baimen, lizentzia eta autorizazioak kudeatzeko betebeharra izango du.

29.- LANEN KONTROLA

Lanak eta batez ere horiek burutzeko erabilitako baliabideen kalitate kontrolak Garbitania S.M-ko ekipo teknikoaren parte-hartzearekin egingo dira.

30.- LANAK ONARTZEA

1.- Kontratua guztiz betetzat emango da, bere xede den prestazioa osotasunean betetzen denean ezarritako baldintzen arabera, Garbitaniaren onarpenarekin.

2.- Egindako lanek ez badituzte onartzeko behar diren baldintzak betetzen, dagozkion aginduak emango zaizkio esleipendunari aurkitutako akatsak zuzen ditzan eta horretarako ezarritako epean bere obligazioak bete ditzan, eta agindu horiek bete arte ez zaizkio lanak onartuko. Emandako epean ez baditu aginduak betetzen, kontratua deuseztatu egingo da eta fidantza galduko du.

31.- ZIGORRAK KONTRATISTARI KONTRATUA EZ BETETZEAGATIK

a) Berandutze-zigorrak

   Kontratistak, berari dagozkion arrazoiak medio, plegu hauetan jasotako edozein epe beteko ez balu, Garbitaniak kontratua suntsiaraztea erabaki dezake, edota egindako hutsegite bakoitzeko eguneko zigorra ezar diezaioke kontratistari. Zigorraren zenbatekoa egun bakoitzeko SPKLren 193. artikuluan zehazten den proportzioan egingo da.

b) Kontratatutako prestazioaren betetze akastuna edo kontratu-baldintzen ez betetzeagatik zigorrak

Kontratistak, berari dagozkion arrazoiak medio, kontratuan definitzen diren prestazioak partzialki betetzen ez baditu Garbitaniak kontratua suntsiaraztea erabaki dezake, edota egindako hutsegite bakoitzeko eguneko zigorra ezar diezaioke kontratistari Zigorraren zenbatekoa egun bakoitzeko jasan beharreko akatsarekiko proportzionala izango SPKLren 192. artikulua jarraiki ezarriko da.

Zigorrak kontratistari guztira edo zati baten ordainketa gisa ordaindu beharreko kantitateetatik kenketa eginez gauzatuko dira. Hori ezinezkoa denean, bermetik kenduko dira kantitate horiek eta bermea gainditzen duena erreklamatu egingo da.

32.- KONTRATUA BERTAN BEHERA UZTEKO ARRAZOIAK

Kontratua bertan behera uzteko arrazoiak SPKLren 211. eta 313. artikuluetan ezarritakoak dira.

33.- DATU PERTSONALAK BABESTEA

Kontratazio honek berarekin izaera pertsonaleko datuetan sartzea dakarrenean, enpresa kontratistak SPKLaren Hogeita Bosgarren Xedapen Gehigarrian xedatutako betebeharrak bete beharko ditu, abenduaren 5eko Datu Pertsonalen babeserako eta eskubide digitalen bermeari buruzko 3/2018 Lege Organikoari eta hori garatzen duen araudiari dagokionez.

34.- KONTRATAZIO-ORGANOA

Kontratazio organoa Garbitaniako Administrazio Kontseilua izango da.

Prozeduraren tramitazioa aurrera eramateko Kontratazio Mahaia ahalmentzen da, bere konposaketa kontratazio organoak berak izendatuko duelarik. Azterketa, aholkularitza, proposamen eta sostengu teknikoa Kontratazio Mahaiak burutuko dutelarik.

EGINBIDEA.- Baldintza Administratiboen Agiri hau GARBITANIA ZERO ZABOR S.M.ko Administrazio Kontseiluak onartu zuen, 2025eko uztailaren 11n egindako bilkuran.

ERANSKINAK:

I.- PROPOSAMEN EKONOMIKOA-EREDUA "3 ARTXIBO ELEKTRONIKOA"

…….. jaunak/andereak adinez nagusia, ……..(e)n bizi dena eta N.A.N-zka…….. duena), ……(r)en izenean eta ordez (honek egoitza soziala……...(e)n eta CIF-IFK-zka. ..... duelarik) zera

ADIERAZTEN DU:

Lehena.- Ezagutzen dituela GARBITANIA ZERO ZABOR S.M.K HERNANIN GAIKAKO BILKETAN ETA KALE GARBIKETA ZERBITZUAN JASOTAKO ERREFUSAREN TRANSFERETNZIA ZERBITZUA KONTRATATZEKO Administrazio-Klausula Partikularren eta Baldintza Teknikoen Agiriak.

Bigarrena.- Bere erantzukizunpean adierazten duela berak ordezkatzen duen enpresa ez dagoela, indarrean dagoen legeriaren arabera, kontratuak egiteko debeku-kasuetan sartuta, badituela behar hainbat gaitasun juridiko eta bitarteko aipaturiko lanak egiteko eta betetzen dituela kontratu honetarako eskatzen diren baldintza espezifikoak.

Hirugarrena.- Esleipendun gertatuz gero, onarturiko Agirietako baldintza eta betebeharrei zorrotz jarraituz egingo dituela lanak.

Laugarrena.- Aipaturiko lanak guztira prezio honetan egitera konprometitzen dela:

1) …….. (letraz eta zenbakiz) ……..euro/garraio bakoitzeko. BEZaren % .....ari dagozkionak.

Hernanin, 2025ko XXx(a)ren XXX(a)n

Adierazpen-egilearen sinadura,

Snta..: _____

II.- AITORPEN ARDURATSURAKO EREDUA "1. ARTXIBO ELEKTRONIKOA"

…… jaunak/andereak adinez nagusia,……..…...(e)n jakinarazpenetarako helbidea duena eta …….. N.A.N-zka duenak, ……(r)en izenean eta ordez (honek egoitza soziala……...(e)n eta CIF-IFK-zka. ..... duelarik), ……. lehiaketan parte hartzen duenak, ……ren aurrean

BERE ARDURAPEAN HONAKO HAU AITORTZEN DU:

LEHENENGOA.- Hernanin gaikako bilketan eta kale garbiketa zerbitzuan jasotako errefusaren transferentzia zerbitzua kontratatzeko prozesuan parte hartzeko asmoa duela.

BIGARRENA.- Aipatu prozeduran parte hartzeko Sektore Publikoko Kontratuen 9/2017 Legeak 140. artikuluko lehen atalean jasotako aurretiazko baldintza guztiak betetzen dituela, zehazki ondorengoak:

— Sozietatea baliozki eratuta dagoela; daukan helburu soziala kontuan hartuta, lizitazioan parte har dezakeela; eta adierazpena sinatu duenak proposamena aurkezteko eta sozietatearen izenean aritzeko eskumena duela.

— Sailkatua dagoela edo, hala badagokio, kaudimen ekonomiko, finantzario eta tekniko edo profesionaleko baldintzak betetzen dituela, agiriak Europako kontratazio-agiri bakarraren formulario normalizatuaren arabera ezarritako moduan.

— SPLKren 71. artikuluan jasotako kontratatzeko debekurik ez duela ziurtatzen du, eta zerga eta Gizarte Segurantzak ezarritako betekizunetan egunera daudela.

— Kontratuaren inguruan zuzenean edo zeharka sor litekeen edozein gorabeheratarako Espainian edozein mailatako auzitegi eta epaitegien eskumenean jartzen direla adierazten du, eta atzerrian izan ditzaketen foru jurisdikzionalari uko egiten diela. (Atzerriko enpresen kasuan).

— Jakinarazpenak egiteko posta elektronikoaren helbidea ……dela (lehentasunezko bidea izango da).

HIRUGARRENA.- Esleipendun gisa proposatua izanez gero edo berau horrela eskatua izango balitz, aitorpen honen bigarren puntuan jasotzen diren baldintzak betetzen dituela adierazten duten dokumentuak aurkezteko konpromisoa hartzen duela.

Dagokion lekuan baliozkoa izan dadin, aitorpen hau sinatzen dut

……n, 2025ko, …….rean ….n.

Adierazpen-egilearen sinadura,

Snta.: _____